



Antonia Garzia, zaraitzuerazko hiztegitik ateratako argazkian.

«Izagutu zintzagunon botza»

EUSKALKIAK. Atzo lurra eman zioten, Ezkarozen, Antonia Garcia Loperena 88 urteko espartzarrari, zaraitzueraz hitz egiteko gai ziren azken hiru hiztunetako bati.

Alberto Barandiaran | IRUÑA

Izagutu zintzagunon botza izan zintzan. Zure barrexkoaren oreitza beti egonen da gure gogoan». Antonia Garcia Loperena 88 urteko espartzarra horrela agurtu zuten ilobek atzo, Ezkarozen. Zaraitzueraz. Amaborzeren ama hizkeraz.

Antonia zen teknikoki desgertuta dagoen euskalki horren azkenetako hiztuna. Zaraitzuerazko hiztegia egin duen Aitor Aranaren arabera, azken hiru-retako bat. Eaurtako Mari Cruz Esarterekin batera, Antoniak harreman zuzena izan du azken bi urteotan Aranarekin, eta bien euskara hondarreko baina era berean bitxi eta aberats horren lekukoa geratu da hiztegian.

Aita eta amarekin euskaraz xardokitzeak ohitura

Antonia Garcia 1913an jaio zen Espartzan, familia euskaldun batean. Aita eta amarekin euskaraz xardokitzeak ohitura bazuen ere, anaiarekin eta ahizpekin euskaraz zein erdaraz aritu ohi zen Antonia.

HIZTEGIA

Zaraitzuko Hiztegia osatzeko Antoniaren ekarpena baliatu zuen Aitor Arana filologoak

Garai hartan, jada galbide bizian eroria zen zaraitzuera. Datuek salatzen dute 1860 urte inguruan, Bonaparte Printzeak Mariano Mendigatxa bidankoz-tarraren eskutitzak jaso eta ikertzen zituen garaian, 3.100 zaraitzueradun ba omen zirela Itzaltzutek Uskartzera. 1935ean 1.540 ziren; eta 1972an, 327.

Aitor Aranak hiztegia egiteari ekin zionean, Zaraitzuko euskarari buruz zegoen bibliografia sakon aztertu zuen, eta, bigarren fasean, bibliografian eta testuetan aurkituriko hitz zerrenda egiaztatu egin zuen Antonia Garziarekin.

«Oron anitz xunto» —Antoniak berak esaten zuen bezala— eman ondoren, bere galdeketa eta elkarriketatik bi mila-

tik gora hitzen lekukotza hartu zuen Aranak, haietarik 249 andreak bakarrik emanak. «Testuetatik ateratako 5.000 hitz berari galdetu nizkion», dio Aranak. «Ea ezagutzen zituen, oroitzen zen...».

Oraindik hitzunak izatea, «miraria»

Aranarentzat, zaraitzuerak izan duen beherakada kontuan hartuta, horrelako hitzunak oraindik aurkitzea ia-ia «miraria» da. «Hirurogei urte iragan dituzte euskaraz egin gabe, eta eutsi baldin badiote oroimen ona dutelako izan da».

Antonia urteetan aritu zen zerbitzari hainbat tokitan, besteak beste, Uhartan edo Eibarren, eta zaraitzuera nolabait «kutsatua» bazuen ere, Aranak bere gogo ona azpimarratu du.

«Hirekin renobatu diat euskara guzia», esaten zidan, harentzat oso pozgarria zelako. Hilero gutunak idazten nizkion zaraitzueraz, eta berak telefonoz erantzuten zidan, ezin zuelako idatzi, adierazi du Aitor Aranak.

EUSKARA

Hizkuntza berreskuratzeko lanei buruzko ikastaroa antolatu dute SEI eta UEUk

Erredakzioa | DONOSTIA

Urrats berriak hizkuntz berreskurapen lanetan izeneko ikastaroa antolatu dute Euskal Soziolinguistika Institutuak (SEI) eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Soziolinguistika Sailak. Martxoaren 2an hasi eta maiatzaren 4ra bitartean egingo da ikastaroa Eibarko Markeskoa Jauregian, larunbat goizetan.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ikastaroaren xede nagusia azken urteotan euskara berreskuratzeko lanetan izandako egitasmo eta ikerketa berriak ezagutzera ematea da.

Ikastaroa Hiznet graduondoko ikastaroa egiten ari diren ikasleei dago zuzendua, batetik; eta, bestetik, euskararen normalizazio lanetan diharduten edo jardun nahi duten guztiei: administrazio

zein irakaskuntzako hizkuntz teknikariei, euskara elkarte-etako dinamizatzaileei, euskal filologia, soziologia, antropologia eta beste zenbait ikasketa egiten ari diren ikasle eta lizentziatuei... Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek otsailaren 22ra bitartean eman dezakete izena.

Zortzi saio, hizlari ugari

Ikastaro dinamiko eta parte hartzeko modukoak izango dira, eta egunero gai bati egingo diote tokia. Besteak beste, gazteen arteko euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak, Kataluniako ikasbidea, Euskal Herriko hizkuntza egoeraren azken datuak, euskararen historia soziala, herrietako plan estrategikoak, diagnosirako eta prospekziarako tresna eta esperientzia berriak eta ikerketa lan eta ekimen berriak aztertuko dituzte.

UNIBERTSITATEA

Uriarteren katedra zergatik baliogabetu duten azaltzeko eskatu dio PSEk Monterori

Agentziak | BILBO-GASTEIZ

Bere aurkako kanpaina salatu du Letamendiak

PSE-EEK atzo eskatu zuen Manuel Montero Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak berehala azal dezala Eusko Legebiltzarreko Hizkuntza Batzordean zer dela eta baliogabetu duten Edurne Uriarteren Zientzia Politiketako katedra.

Halaber, Isabel Cela PSE-EEko legebiltzarkideak eskatu dio Monterori unibertsitateko zenbait irakasle ustez pairatzen ari diren mehatxuen inguruan azalpenak eman ditzala.

Francisco Letamendia Ortzik salatu zuen, Uriarteren katedra baliogabetu duen epaiaren ondoren, ofentsiba bat hasi dutela bai bere aurka, eta baita unibertsitate osoaren aurka ere. Letamendiak esan du gaiaz hitz egin nahi duela, baina Erreklamazio Batzordearen txostena eskuratu arte itxarongo duela. Letamendiak errekurtsio bat ezarri zuen erakunde horretan Uriarteri katedra ematearen aurka.

ESKOLAK
EUSKALDUNDO HAUR JOLASAK, PUZGARRIAK, TAILERRAK...
BEHAR DU!

BILBON 11,00 AREATZAN	OTS. 16
IRUÑEAN 11,00 S.FRANTZISKO PLAZAN	OTS. 23 KANPAINA BUKAERAKO EKITALDIA!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ